

Ur biltegi berri bat Arakan



AMVISAk 30.000 m³ metatzeko elementu baten eraikuntza amaitu du. 2019an EUako deposituetan 105.000 m³-ko edukiera lortuko da.

AMVISAk 30.000 m³-ko edukiera eta 62 m-ko diametroa duen ur biltegi berri baten eraikuntza amaitu berri du; bere estankotasuna probatu da eta emaitza positiboa izan da, eta orain dela gutxi eraitsi den beste bat ordezttera etorri da.

Gainera, uren udal enpresak espero du 2018an ingurune horretan geratzen den ur biltegi zahar bakarra ordeztzea, 35 urte baino gehiago baititu. Hau ere indartu egin da, orain amaitu berri den obra egin bitartean funtzionamendu egokia bermatzeko; obrak 12 hilabete iraun du. Aurki haren eraiketa eta eraikuntza berria lizitatuko dira, eta proiektua aprobetxatuko da biltegirako nabe berri bat eta ur biltegien guneko behin betiko urbanizazioa eraikitzeko. Espero da bigarren elementu horrek 2019ko lehen seihilekoan hasiko duela zerbitzua. Bi ur biltegiak orain dela hamarkada bat baino gutxiago eraiki zen hirugarren bati gehituko zaizkio.

Horrenbestez, 8 milioi euroren inbertsio bat egin ondoren, Vitoria-Gasteizko edukiera 105.000 m³-raino igo da. Interbentzio horiei esker, kontsumoa bermatuta geratuko da neguan bi eguneko kontsumoko eta udan egun bat eta erdiko kontsumoko afekzioak gertatzen direnean. Orain arte (eta elementurik zaharrena ordeztzen ari zen bitartean), AMVISAREN ur biltegien edukiera 75.000 m³ zen.

Exporetrete Vitoria-Gasteizen

Komuna eta hustubideak ez direla erabili behar botatzeko toallatxo hezeak edo makillajea kentzekoak, olioak, medikamenduak, janaria edo etxeko bestelako hondakinak, makillajeko produktuak, hori da Vitoria-Gasteizen ikusi ahal izango den erakusketaren mezu nagusia, azaroaren amaieran, hilaren 22tik 26ra, Arka plazan. "Herritarren ohiturak eta kutsatzaila berriak" izeneko proiektu kolaboratiboak bultzatuta, zeinean AMVISAK eta beste euskal operadore batzuek, URAK eta ACLIMAK ere parte hartzen duten, **Exporetrete erakusketan hainbat dibulgazio elementu daude, horien artean panelak, bideoak, maketak eta elementu interaktiboak**, modu ludiko eta errazean jarraibideak ematen dizkigutenak komunaren erabilera egokiari buruz eta saneamendu sarera egindako isurketei lotutako butxadura eta kutsadura arazoak saihesteari buruz.

Erakusketaren elementu nagusia komun bat da, eta horren inguruan uraren ziklo integrala eta saneamendu sistemen funtzionamendua irudikatzen da, eta, aldi berean, komunitik behera zaborra botatzearen ondorioak aurkezten dira. Aipamen berezia merezi dute toallatxo hezeek, eta horien eragina zuzenean ikus daiteke, kristalekoz pote batzuen bitartez, zeinetan ikusiko dugun produktu horiek urari eman eta gero nola diluitzen edo desegiten diren. Orain dela gutxi, Valentzian edo Donostian zapi toallatxo hezeak pilatzeagatik geratu diren butxadura ikaragarrien kasuak ezagutu ditugu, arazoaren magnitudetak eta horiek konpontzeko egin behar diren gastu izugarriak erakusten dutenak.

IRADOKIZUNEN BAT EGIN NAHI DIGUZU, EDO IRITZIA EMAN?

Posta elektronikoz egin dezakezu. Hauxe da helbidea:
info@amvisa-futura.org



Biltegi berria eraikitzeko prozesua